

# Asisko gutuna

2010eko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

kanporantz, elkartasuna

19. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetako Asisko Gutunak, gaur larria den arazo bati kasu egitera gonbidatzen gaitu: jende baztertuari, alegia. Inguruko jende baztertuarekiko dugun begirada eta jarrera ispilu ona izan daiteke, solidaritatea (Asis Sareko hirugarren printzipioa) nola bizi dugun ikusteko.

Baina hil honetako gaia haratago doa, hau da, bakoitzak bere buruagan dituen esperientziei begira jartzera gonbidatzen gaitu: arrazoi bategatik edo besteagatik nola sentitu garen baztertuak ikustera, eta sentimendu horiei Jesusen eta Frantziskoren hautapenen argitan so egitera.

## Gogoetarako gaia

### Baztertuekin solidario izanez

Askotan esaten dugu, solidario izan behar dugula baztertuekin, zeintzuk diren edo zer zerikusi duten gurekin gehiegi pentsatu gabe. Baina, aldi berean, ahalegin handiak egiten ditugu talde horretakoak ez izateko. Kosta ala kosta toki bat nahi dugu komunitatean, geure taldeko parte izan, ahalik ondoen gune bat hartu geure gizartearen sarean. Hala ere bizitzak jar gaitzake, bat-batean, nahi ez genuen tokian. Gutako edozein, halako une batean, geldi daiteke baztertua: sufrimenduak, oinazeak, nahiz irtenbiderik gabe gelditzeak kanpoan uzten zaitu eta ahaleginez gordetzen zenuen tokitik ateratzen.

Irteten zara kalera eta, antza, dena ondo doa zure inguruan. Baina kanpoan gelditu bazara, bat-batean sentitzen duzu dena aurrera doala, zu izan ezik. Sufrimendu larriak kateatzen zaituenean, jendea pozik eta lasai ikusten duzu inguruan bizitzako poz txikiak dastatuz, eta zu kanpoan zaude.

Miseria eta baztertze sozialak kanpoan uzten du erabat. Baina beste gorabehera eta egoera askok ere utz gaitzakete bide bazterrean.

Langabeziak tokirik gabe uzten zaitu gizartean, ezinean eta irtenbiderik gabe zaude, kanpoan sentitzen zara. Gaixotasunak eskusioa ekartzen dizu: jada ez zara osasundunen mundukoa, hiltzeko mehatxuak besteengandik urruti jartzen zaitu. Hori bera gertatzen da, maiz, edadekoekin eta ezinean aurkitzen direnekin, edo itxaropena galdu dutenekin.

Ebanjelioak hitz ematen digu, azkenengoak direla begikoenak, ez dela inor kanpoan gelditzen. Jesusek azkenengo izanez burutu zuen bizitza. Kanpoan zeudenen ondoan jarri zen bizitzan, eta baztertuek barru-barrutik maitatu zuten. Frantziskok kanpoan jarri zuen bere burua: gizartean toki gailena izatetik, hiriz kanpo joan zen baztertuekin bizitzera, eta hori zela bere tokia uste izan zuen.

Jesusen bizitzak edo Frantziskoren testigantzak zerbaitez ezberdineratzen jotzen dute: baztertuekin solidario izatea beraien errealitatean sartzea da, eta horrek galde egiten du eta gure tokiaren segurtasuna kolokan jartzen.

## Ebanjelioko pasartea: Lk 9, 46-48

Eztabaida sortu zen ikasleen artean, nor ote zen beraietan handiena. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta, haur bat harturik, bere ondoan jarri eta esan zien: «Haur hau nire

izenean onartzen duenak neu onartzen nau; eta ni onartzen nauenak, bidali nauen hura onartzen du. Zeren zuetan txikiena, horixe baita handiena».

## Espiritualtasun frantziskotarra

Frantziskoren garaian aldaketa handi eta sakonak ematen dira, gaurko gure honetan bezalaxe. Orain bezala orduan ere, behartsuak, legendunak, baztertuak kanpora gelditzen ziren organizazioaren interesetatik, Asisko harresitik kanpora, behean eta beheratuta.

Frantziskok, inor kanpora ez uzteko eta denak barruan sartzeko buru-argitasuna, apaltasuna eta ausardia izan zuen: *“Zuek denak senideak zarete”* (1 Er 22,33) eta *“Anaia guztiak poz hartu behar dute, jende baxu eta mespretxatuarekin, behartsu, ahul, gaixo, legendun eta bide-bazterretako eskaleekin batera bizi izateaz”* (1 Er 9,2).

Frantziskotar ikuspuntutik, gauza ez da ekintza solidario isolatuak egitea, momentuko bihozkadaren edo borondate onaren arabera; baizik eta beti solidario izatea, ezer baino lehen “nire senide” direnekin. Frantziskotar solidaritatea ez da “gainetik jarritako” eranskina, denekiko senidetasuna praktikatzeko modua baizik.

## 31 (30) Salmotik

Jauna, zuregan dut babes:  
ez dakidala neure ustea huts gerta!  
Zuzena baitzara, atera nazazu onik.  
Entzun, arren, niri!  
Libra nazazu, ez luza!

Izan zakizkit harkaitz babesle,  
gaztelu salbatzaile.  
Eraman nazazu eta gidatu, zaintzaile zaitudalako!  
Zure eskuetan jartzen dut bizia:  
aska nazazu, Jauna.

Nik, Jauna, zuregan dut konfiantza.  
Zure maitasunak pozez bete nau.  
Ikusi duzu nire atsekabea,  
arduratu zara nire larrialdiaz;  
oina toki lasaian jarri didazu!

Nik, Jauna, zuregan dut konfiantza: “Zu zara nire Jaingo”.  
Zure eskuetan dago nire zoria.  
Erakutsi aurpegi argia zerbitzari oni,  
salba nazazu zeure maitasunaz.

## Gutuneko azken hitzak

Esklusio soziala, gizarteko estamentu eta erakunde guztien erantzukizun solidario faltatik dator.

## 2010eko ekaineko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Mk 12, 13-17	8 Mt 5, 13-16	15 Mt 5, 43-48	22 Mt 7, 6. 12-14	29 Mt 16,13-19
2 Mk 12,18-27	9 Mt 5, 17-19	16 Mt 6, 1-6. 16-18	23 Mt 7, 15-20	30 Mt 8, 28-34
3 Mk 12, 28-34	10 Mt 5, 20-26	17 Mt 6, 7-15	24 Lk 1,57-66.80	
4 Mk 12,35-37	11 Lk 15, 3-7	18 Mt 6, 19-23	25 Mt 8, 1-4	
5 Mk 12,38-44	12 Lk 2,41-51	19 Mt 6, 24-34	26 Mt 8, 5-17	
6 Lk 9, 11b-17	13 Lk 7, 36-8, 3:	20 Lk 9, 18-24	27 Lk 9, 51-62	
7 Mt 5, 1-12	14 Mt 5, 38-42	21 Mt 7, 1-5	28 Mt 8, 18-22	

### Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hilerio hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2010eko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizitza:

kanporantz, eldertasuna

19. zenbakia

Geure inguruan dagoen eskusio-munduari begira jartzen garenean, orduan bihurtzen da zehatza solidaritatea den balorea. Izan daiteke nahiko erraza, gure gizarteko kolektibo baztertuez konturatzea; baina apika ez da hain erraza, honegatik edo horregatik baztertutak dauden edo sentitzen diren pertsonak ikustea. Honetara gonbidatzen gaitu hil honetako Asisko gutunak: eskusio-modu guztiak kontuan hartzera eta sufritzen dutenekin solidario izatera.

### Baztertuekin solidario izan

Begira une batean zeure ingurura. Nortzuk dira baztertutak? Nortzuk dira gaur, "harresiz" kanpo gelditzen direnak?

Ez gelditu, soilik, talde jada ezagunekin, gertuago nahiz urrutixago dituzunekin: aterperik ez dutenekin, etorkinekin, etab. Pentsa itzazu pertsona zehatz eta gertukoak, honegatik edo horregatik gure gizartearen martxatik benetan baztertutak senti daitezkeenak. Horrela aurpegia jarri diezunean, haiengana hurbiltzera gonbidatua sentitzen zara? Egin dezakezu solidaritatezko pauso errealistaren bat beraiekin?

Zu zeu ere, apika, baztertuta sentitzen zara. Zergatik? Nola bizi duzu hori?

Gogoetan, Jesusi eta Frantziskori, haien biziera eta hautapenei begiratzera gonbidatzen zaizu. Lagundu egiten dizu horrek zeure egoera hobeto bizitzen? Sentitzen duzu, horrek zeure barnean solidaritateari eragiten diola?

### Zuetan txikiena, huraxe da handiena.

Bitxiki, Jesusen ikasle haiek antz handia zuten gurekin. Etekina nola atera pentsatzen, beti, nola irabazi gehiago, nola eduki lan hobe eta gizarte-maila hobe. Zertan "nabarmendu" nahi duzu zuk?

Testu honen eta Ebanjelio osoaren arabera, Jesusi bost axola zaizkio, gaurko gizarteari neurri handian eragiten dioten anbizioak. Zer oihartzun dute zuregan Jesusen hitz hauek: "zuetan txikiena, huraxe da handiena". Ematen dizute argirik zeure bizitzarako? Jartzen dute zure hautapen edo jarreraren bat eztabaidan?

### Solidaritate frantziskotarra

Askotan oilarrarena egiten ibiltzen gara, gizartean entzute edo sona handia duten pertsonak ezagutu edo tratatu ditugulako: ze oihartzun du zuregan Frantziskok dioenak: "anaia guztiak poz hartu behar dute jende baxu eta mespretxatuarekin ... bizi izateaz"?

Pertsona horiek, neurriren batean gutxienik, zeure bizitzako parte dira? Zein modutako pertsonekin "hartzen duzu poza"?

Aldatuz doa zure besteekiko begirada, batez ere gizartean gutxien direnekiko? Zerk zaramatza horretara? Bestela, zer esplikazio duzu horrentzat?

### "Jauna, zuregan dut babes" "

Estualdietan dabilenen batek idazten du salmo hau. Agian pertsegitua sentitzen da, izen onean belztua, gaixo, arrisku motaren batean, betilun, etsita ...

Geure bizitzako uneren batean gu ere aurkitu gara, seguru asko, horrela moduko egoeraren batean. Agian zuk zeuk orain horrelako egoera zailean bizi zara.

Irakurri poliki-poliki salmoa, hura zeure eginez. Irakur ezazu zeure egoeratik.

Zeure zailtasunaren hondo-hondotik, utzi oihi honi Jainkoagana irteten: salba nazazu, Jauna!

Utzi salmoko esan hauei zeure bihotzean sartzen: Nik, Jauna zuregan dut konfiantza: Zu zara nire Jainko. Zure eskuetan dago nire zoria.

Sentitzen duzu zeure baitan dena aldatzen hasten dela, toki berrian pausatzen zaizkizula zailtasunak, bake apur bat sortzen dela zeure baitan?